

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BASTIDAKO UDALA

Behin betiko onespena ematea 1/2021 kreditu gehigarriaren espedienteari

Honen bidez adierazten da 1/2021 kreditu gehigarriaren espedientea jendaurrean jartzeko izapidea egin eta haren aurka erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onetsi dela eta argitaratu egiten dela ondoren adierazten den moduan, halaxe agintzen baitu Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuen otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 15.1 eta 34.3 artikuluetan.

Kreditu gehigarriak

PARTIDA	GASTUAREN IDENTIFIKAZIOA	ZENBATEKOA (EUROTAN)
920.131.001	Enplegua sustatzeko 2021eko programako aldi baterako langileen ordainsariak	23.111,00
920.131.002	Gazte Enpleguko 2021eko Programa Operatiboko aldi baterako langileen ordainsariak	12.003,27
920.160.002	Enplegua sustatzeko 2021eko programako aldi baterako langileen gizarte segurantzak	7.259,00
920.160.003	Gazte Enpleguko 2021eko Programa Operatiboko aldi baterako langileen gizarte segurantzak	4.425,00
134.210.000	Ibilgailu elektrikoa kargagunea mantentzea	512,01
412.210.000	Landa bideak onik zaintzea	25.000,00
164.211.000	Konponketak udal hilerrian: sarrerako ate berria	15.000,00
320.212.001	Konponketak herri ikastetxean	10.000,00
342.212.001	Konponketak udal igerilekuetako tabernan	12.302,00
163.221.002	Kaleak garbitzeko material teknikoak	2.000,00
320.221.002	Ikastetxeko urak	500,00
920.221.011	Tresnak eta erremintak	2.000,00
342.224.002	Igerilekuen aseguru saria	6,36
342.224.003	Kiroldegiaaren aseguru saria	31,00
932.226.990	Kobrantza saria	1.698,67
132.227.000	CCTV sistema, kiroldegiko aparkalekua	2.674,96
1621.227.026	Etxeko olioetarako ontziak	1.000,00
335.227.070	Gazteek eta adinekoek dituzten beharretan herritarrek parte hartzeko prozesua	14.520,00
337.227.994	Gazteleku lantegiak	4.000,00
334.277.996	Irakurtzea sustatzeko programa	3.137,00
231.227.990	Osasuna sustatzeko programa	7.000,00
430.227.990	Enoturismoa sustatzeko kanpaina. Upeltegiak	3.872,00
450.227.990	Langileak jartzea obretako udal brigadaren zeregin metaketak betetzeko	3.000,00
934.361.000	Berandutze korrituak	102,40
334.481.004	MAHASTIAK kirol klubarentzat 2021-22 dirulaguntzak	9.000,00
341.481.004	Dirulaguntza Bastida XTrail antolatzeko	3.500,00
171.609.000	Kaleko altzariak, eserlekuak, paperontziak	5.000,00
330.601.006	Turismo bulegoan oztoko arkitektonikoak kentzeko eta segurtasun sanitario handiagoa bermatzeko obrak	9.504,00
336.601.007	Heraldikari buruzko kale-erakusketa – II. fasea	4.494,00
336.601.008	Egurrezko sarrera atea zaharberritzea Santa Luzia basilizan	9.337,00
336.601.009	Sartzeko ate berria San Gines basilizan	2.221,00
134.642.004	Bastidako Hiri Mugikortasun Jasangarrirako Plana	10.467,00
342.625.001	Kirol altzariak	500,00
Guztira		209.177,67

Finantzaketa

AZPIKONTZEPTUA	IZENA	ZENBATEKOA (EUROTAN)
41004	Eusko Jaurlaritzaren Udalaguntza 2020 dirulaguntza. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen 2021eko maiatzaren 11ko Ebazpena	14.566,34
87001	Diruzaintzako gerakina gastu orokorretarako	192.999,33
Guztira		209.177,67

1/2021 kreditu gehigarriaren espedientearen behin betiko onespentak administrazio bidea agortzen du, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua soilik aurkeztu ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako epaitegian. Horretarako, 2 hilabeteko epea egongo da, iragarkia ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik hasita.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Bastida, 2021eko irailaren 8a

Alkatea

LAURA PÉREZ BORINAGA